

Lan deialdia:

Hezkuntza teknikaria Euskadiko Gazteriaren Kontseiluan

ESKAITZEN DA:

- Lanpostua **BILBON**, baina lan-eremua Euskadi osoa izango da.
- Urtean 26.250,90€-ko (soldata gordina).
- EGKren barne hitzarmenak araututako lanpostu bat eta EGK-ko Batzorde Iraunkorraren ardurapean.
- Lantalde gazte eta dinamiko batean parte hartzea.
- Gizarte eta politika publikoetan euskal gazteriaren parte-hartzearen alde lan egitea.

LANPOSTUAREN EZAUGARRIAK:

- Lan-arloari dagozkion **proiektuak** eta **ekimenak** diseinatu, aurrera eraman, ebaluatu eta koordinatu.
- Erakundearen lan-arlo guztiekin **ekintzak** koordinatu.
- **Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako Astialdi Foroak** koordinatu, eta baita **euren arteko erlazioa** ere.
- Hezkuntza formaleko eragilez osatutako '**Hezkuntza Foroa**' lantaldea koordinatu.
- **Hezkuntza formala** eta **astialdiaren** arloko **errealitatea** ezagutu eta jarraipena egin.
- Lan-arloari dagozkion gaien inguruan **posizionamendu/balorazio publikoak** egin.
- **Bitartekaritza** eta **elkarlana** burutu **Erakunde Publikoekin**. (Eusko Jaurlaritza, aldundiak, udalak, Lanbide...)
- **Gizarte eragileekin elkarlana** bultzatu eta garatu.
- **Elkarteek** eta **gizarte mugimenduek** garatzen dituzten **proiektuak/ekimenak** ezagutu eta parte hartu.

ESKATZEN DA:

- **30 urte** baino gehiago ez izatea.
- Euskal **elkartegintzaren** eta **gizarte mugimenduaren** errealitatearen **ezagutza** izatea, eta bereziki, hezkuntza formala eta astialdi hezitzaile arloan diharduten gizarte eragileena.
- **Astialdiko elkarteren** batean **ibilbide egiaztatua** edukitzea.
- Gazteen eta orokorrean gizartearen errealitatearen **ezagutza** izatea, eta batez ere **aisialdia** eta **hezkuntza** arloko **arazo** eta **aukeren** inguruan.
- **Euskaraz eta gazteleraz** hitz egiteko eta idazteko **maila altua** (EGA, HABE 3...).

- Gizarte arloko **goi ikasketak** izatea, edo, beste esparruetako ikasketak izanda ere, gizarte gaietan espezializatu izana (bereziki hezkuntzarekin lotutako ikasketa gehigarriak izatea).
- Lantaldeak eta eztabaida-taldeak **dinamizatu eta koordinatzeko gaitasuna** eta esperientzia. Dinamika hauetatik ondorioak atera eta dokumentuetan islatzeko gaitasuna.
- **Malgutasuna**: ordutegi eta mugikortasun geografikoa.

BALORATUKO DA:

- Lantaldean aritzeko trebetasuna: malgua izatea, proaktibitatea eta ardurak hartzeko gaitasuna izatea.
- Ekimen propioak autonomiaz garatzeko gaitasuna.
- Antolaketarako gaitasuna.
- Harremanetarako gaitasuna.
- Hainbat eginbehar berean gauzatzeko gaitasuna.
- Ingelesa eta beste hizkuntza batzuen ezagutza.
- Informatika-ofimatika eta datu ustiakarako programa estatistikoaren ezaguerak.
- Elkarrekin ezberdinetan parte-hartze aktiboa (ikasle mugimenduan, begirale munduan ...).

CURRICULUM-ak:

- Epea: urriak 6 goizeko 12:00ak arte.
- egk@egk.org helbidera bidali / Gaian "Hezkuntza teknikaria" idatzi.
- Curriculum dokumentua honela izendatu:
- IzenAbizenak.CV_HEZKUNTZA.pdf/doc.
- Motibazio Gutuna honela izendatu:
- IzenAbizenak.GUTUNA_HEZKUNTZA.pdf/doc.

AUKERAKETA PROZESUA

Hauek izango dira prozesuan kontuan hartu izateko hainbat data:

- Curriculumen bidalketa, urriaren 6a arte (eguerdiko 12.00ak arte).
- Froga idatzia nork egin behar duenaren jakinarazpena, urriak 10ean.
- Froga Idatzia Bilbon, urriak 17.
- Elkarrizketa nork egin behar duenaren jakinarazpena, urriaren 23an.
- Elkarrizketa eguna, urriak 24ean.
- Lanean aritzeko hautatuaren jakinarazpena, urriak 25.
- Lanean hasteko data, azaroaren hasieran.